Urriaren 28ko komunikatua

Komunikatu honen bidez, Nafarroako Osasun Plataformak iragartzen du azaroaren 4an etenaldi bat egitea proposatzen diela herritarrei eta osasun arloko langileei, urriko asteazkenetan Nafarroako osasun etxeetan egin dugun "Defiende tu Centro de Salud/Osasun Etxea zaindu" izeneko kontzentrazio-dinamikan.

Datozen bi aste hauetan, orain arte egindakoaren balorazioa egingo dugu, eta fase berri bat definituko dugu, osasun-langileak eta erabiltzaileak mugiarazteko helburuarekin, eta, batez ere, Covid-19ak eta bere gestioak gehien kolpatu dituen kolektibo eta sektoreekin bat eginda aritzeko. Adineko pertsonez ari gara, batez ere egoitzetako erabiltzaileez eta haien senideez; baita gazteriaz, lan-kolektibo prekarioenez eta hamarkada batzuetan murrizketak nozitu dituzten zerbitzu publiko guztiez ere, horiek denak izan baitira sindemiak gehien kaltetu dituenak (1).

Plataformaren iritzian, **Nafarroako Gobernuaren 2021eko aurrekontuak** gaitzeko prozesua funtsezkoa izango da fase berri honetan, eta, horregatik, jarraipen berezia egingo diogu prozesu horri. Eskaera korporatiboen aurrean eta osasun pribatuaren finantzazio-eskaeren aurrean, gure ustez, oinarrizko osasun arreta, osasun publikoa eta laneko osasuna indartzeko eta birbideratzeko garaia da, baita sindemia horrek osasunean eragin dituen desberdintasunei ekitekoa ere. **Prozesu horrek herritarren eta profesional sanitarioen mobilizazioa eskatuko du.**

Joan den astelehenean, Plataforma Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiarekin bildu zen. Harritu egin gintuen bilera hartan Oinarrizko Osasun Laguntzako arduraduna ez egoteak. Baina are harrigarriagoa izan zen Carlos Artundoren proposamen falta, bilerak iraun zuen 3 orduetan. Aho zabalik utzi gintuen jakinarazi zigunean kontseilariak agindu ziola azaroaren amaierarako Oinarrizko Osasun Laguntzarako ekintza-plan bat egiteko. Martxoan ezarri zen alarma-egoera eta ordutik igaro dira makina bat egun…

Bileran, Plataformak honako hauek adierazi zizkion: Covid gaixoei eta gainerako patologiei aurrez aurreko arreta emateko gabezia handiak, telefono-gailuen mugak eta funtzionamendu kaskarra, arakatzaileen eskasia, behar adinako mantenimendua izan ez duten osasun etxeetako azpiegituren hondatzea, profesionalen funtzioetan definizio falta, zerbitzuen gainkarga eta, osasun etxeetako lanaldien luzapen iraunkor eta ez-aitortua. Horrek guztia eragin du gaur egun enplegatuak agortuak egotea.

Gainera, Plataformak hainbat proposamen egin zituen baliabide gehiago lortzeko: oinarrizko osasun laguntzan barneko mediku egoiliarrez baliatzea; laguntza espezializatuko langileak oinarrizkora ekartzea; mutuetako medikuak erakartzea; psikologia klinikoko baliabideak gaitzea sindemiaren ondorioei erantzuteko, baliabide horiek arindu dezaten fakultatiboen lana

– bestela, alternatibak bilatu behar baitituzte erizain-laguntzaileen eta administrazio arloko langileen lana indartu eta fidelizatzeko- ; fisioterapeutak osasun etxeetan integratzea; osasun pribatuak edo oinarrizko arreta espezializatuak agindutako errezetak egiteari uztea, eta abar, eta abar.

Etenaldi bat egiteko unea da, egindakoa baloratzeko eta gure aldarrikapenekin eta mobilizazioekin nola jarraitu asmatzekoa, betiere osasun-sistema publikoa eta gainerako zerbitzu publikoak salbatzeko helburuarekin, urteetako murrizketen eta indefinizioen ondorioz ahulduta baitaude. Sindemiak eta seguru asko sindemiaren kudeaketaren eragileek agerian utzi dute norabidea aldatzeko beharra.

Nafarroako Parlamentuko talde politikoak interpelatzeko unea da, jarrera bat har dezaten Oinarrizko Osasun Laguntza, Osasun Publikoa eta Laneko Osasuna erreskatatzeko eta indartzeko ditugun eskarien aurrea. Horrela, bada, harreman zuzenak izango ditugu haiekin, jarrerak partekatzeko.

Egun hauetan Osasun Departamentuarekin hasitako bilera-sortarekin jarraituko dugu; jendaurrean azalduko ditugu bilera horien emaitzak eta gure balorazioen berri. Azkenik, Nafarroako Osasun Plataformak herritarrei eta osasun arloko profesionalei dei egiten die *Zainduz* adinekoen egoitzetako erabiltzaileen senideen elkarteak hilaren 31rako (larunbata) deitu duten manifestaziora joateko. Mekako ateetatik aterako da. Bere eskaera legitimoen artean dago egoiliarren osasunerako arreta osoa, prestazio farmazeutikoak barne, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egitea. Haien eskubidea da.

Iruñea, 2020ko urriaren 28a.

Nafarroako Osasun Plataforma/Plataforma Navarra de Salud

(1) Sindemiak epidemien sinergia bat izendatzen du; epidemia horiek aldagai sozialak partekatzen dituzte eta denbora eta leku berean existitzen dira, elkarren arteko elkarreraginean.